

XAMANAK (Irakaslearentzako fitxa)

Egia edo gezurra dira ondoko esaldi hauek?

- Xamanek basurdeak ehizatzen zituzten. (GEZURRA)
- Xamanek gaixoak sendatzen zituzten. (EGIA)
- Xamanak espirituekin harremanetan jartzen ziren eta pasatzen ziren gauza arraroen inguruko azalpenak ematen zituzten. (EGIA)
- Xamanek buru handia zuten. (GEZURRA)
- Xamanak oso jakintsuak ziren. (EGIA)
- Xamanek hegan egiten zuten hegoak zituztelako. (GEZURRA)
- Hildakoak ehorzten zituzten. (EGIA)
- Beraien ekintza gehienetan landareak erabiltzen zituzten (EGIA)

XAMANAREN **EZAUGARRIAK**

Hau da tribuko xamanei buruz daukagun informazioa.

- Tribuko Xamanaren egitekoak hauek ziren, besteak beste:
 - Gaixoak sendatzea
 - Espirituekin harremanetan jartzea
 - Errealitateaz haragoko gertaerak ulertzea eta tribukoei azalpena ematea
- Ezagutza maila handia aitortzen zitzaien. Beraz, tribuko partaideentzat oso pertsona jakintsua zen.
- Hildakoak ehorzteko momentuan, pertsona berezia zen, mundu hau utzi eta besterako bidea egiteko laguntza ematen baitzuen.

Hauek denak egiteko erabiltzen zuten osagaietako bat landareak ziren. Hauen baliogarritasunaz jabetu ziren eta inguruan zuten horretaz baliatuta asetzen zituzten tribuko kideen beharrak.

